

**ZENTRALEAN HORMIGOIEN EKOIZPENA
KONTROLATZEKO JARDUERA DUTEN
LABORATEGIEI BURUZKO INFORMAZIO-
OHARRA****NOTA INFORMATIVA SOBRE LOS
LABORATORIOS DECLARADOS CON
ACTIVIDAD DE CONTROL DE PRODUCCIÓN DE
HORMIGONES EN CENTRAL**

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Eraikuntzaren Arkitektura, Araudi eta Kalitate Kontroleko Zerbitzuak, ohar honen bidez, argitu nahi du hormigoizko zentral baten autokontrolerako laborategi gisa jarduten duen laborategi batek, zentralean fabrikatutako hormigoien ekoizpena kontrolatzeko Jarraibide Teknikoa onartzen duen martxoaren 22ko 163/2019 Errege Dekretuaren arabera, **ezin duela eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko laborategi gisa jardun, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, zentral horrek hormigoia hornitzen duen ezein obratan.**

El Servicio de Arquitectura, Normativa y Control de Calidad de la Edificación del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana del Gobierno Vasco, mediante esta nota quiere aclarar que un laboratorio que actúe como laboratorio de autocontrol de una central de hormigón según el Real Decreto 163/2019, de 22 de marzo, por el que se aprueba la Instrucción Técnica para la realización del control de producción de los hormigones fabricados en central, **no puede actuar como laboratorio de control de calidad de la edificación según la Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación, en ninguna obra que dicha central suministre hormigón.**

Horrela, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiek martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuan adierazitako **independentzia, inpartzialtasun eta osotasunaren** baldintzak betetzen dituztela bermatzen da. Dekretu horren bidez, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeei eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiei beren jardueran aritzeko eska dakizkiekeen baldintzak garatzen dira.

De esta manera se asegura que los laboratorios de ensayos para el control de calidad de la edificación cumplen los requisitos de **independencia, imparcialidad e integridad** indicados en el Real Decreto 410/2010, de 31 de marzo, por el que se desarrollan los requisitos exigibles a las entidades de control de calidad de la edificación y a los laboratorios de ensayos para el control de calidad de la edificación, para el ejercicio de su actividad.

Adeitasunez,

Atentamente

Honako honek elektronikoki sinatua:

Firmado electrónicamente por:

Lourdes González Garrido

Eraikuntzaren Arkitektura, Araudi eta Kalitate Kontroleko Zerbitzuaren arduraduna

Responsable Servicio de Arquitectura, Normativa y Control de Calidad de la Edificación

